

# noaua

## "POZIK ETA INDARTSU GAUDE KALEZARREN HARTU DUGUN DINAMIKAREKIN"

Belmonte Auzo Elkartekoak gabonetako apaingarriak prestatzen ari dira egunotan / 08



ARGAZKIA: BELMONTE AUZO ELKARTEA



NOAUA

**BioGipuzkoak eginiko txosteneko datu kezkarriez ohartarazi dute** / 08



NOAUA

**Ezti-poto onenak saritu zituzten larunbateko Erle Egunean** / 12



ZUMARTE

**Zumarte Musika Eskola: "40 urte, erraz esaten da baina ez da makala"** / 15



NOAUA

**Sortaldekin energiaren inguruko jardunaldi batzuk iragarri ditu** / 22

**JARRAI IEZAGUZU SARE SOZIALETAN**



USURBILGO ALBISTEAK KLIK BATEAN

**ARGAZKIAK**



[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

 @nouaastekaria  
  @noaua  
  Noaua Aldizkaria  
  @noauatb

**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA



**G15 USURBIL**

HIGIEZINA | INMOBILIARIA

**5. URTEURRENA!**  
MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAGATIK!

**SALEROSKETA & ALOKAIUAK**  
Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

**TXIRIBOGA**  
TABERNA

Ondo pasa Gabonetan!

**GABONETARAKO ESKARI BEREZIAK PRESTATZEN DITUGU!**

- Arrai zopa · Txipiroiez betetako pikilo piperrak
- Txipiroiak (pelaio erara)
- Kroketak (urdaiazpiko eta onddoenak)
- Legatza saltsa berdean · Bakaioa (bizkaitar erara)
- Txekor masailak · Arkumea saltsan
- Etxeko Foie "Mi cuit-a"

*eta berezitasun gehiago!!! galdeiguzu eta egin zure eskaera!!!*

24 eta 25erako eskaerak 15erako beranduenez eta 31 eta 1erako eskaerak 22rako beranduenez

**943 21 88 40** IRAZU KALEA 6, USURBIL

## Urteko azken bisita gidatuak

**Abenduak 7, larunbata**  
12:00-13:30 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko bisita.

**Abenduak 8, igandea**  
12:00-13:00 Museo Irekia bisita gidatua.

**Abenduak 19, osteguna**  
10:00-11:00 'Zero Zabor' bisita gidatua.

**Abenduak 20, ostirala**  
10:00-11:15 'Zaintzaren Usurbil' bisita gidatua.

**Izen-emateak:**  
650usurbilbizi.eus



Larunbat honetako bisitan, Salbatore elizaren ondarea ezagutzeko aukera izango da.

## Garbigune mugikorra, Aginagan

Abenduaren 5etik aurrera, garbigune mugikorra Aginagan izango da. Era honetan, etxe-ko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Abenduaren 12an osteguna, garbigune mugikorra Zubietara eramango dute.

## Beste bi astekari, urtea bukatu aurretik

Bi NOAUA! baino ez zaizkigu geratzen urte amaierako ohiko etenaldirako; abenduaren 13koa eta 20koa. Urte amaierako ekitaldien berri eman nahi baduzue, abenduaren 12a baino lehen helarazi horren berri, ohiko bideotatik: [erredakzio@noaua.eus](mailto:erredakzio@noaua.eus) / 943 360 321 / Bordaberri, 3 behea.

## Ikastaro hauek iragarri dituzte KzGunean

Abenduan zehar, KzGuneako ateak arratsalde zabalduko dituzte:

- Abenduak 2-12, 16:00-18:00 "Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPEkin".
- Abenduak 13-16, 16:00-18:00 "Google Maps".
- Abenduak 17-23, 16:00-18:00 "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

## 'Goazen kalera' ibilaldi osasuntsua, Usurbilgo erdigunean

Asteartero, Usurbilgo herri eta auzoetan paseotxo osasuntsuak egiteko aukera dago. Amaieran, Lanbide Heziketako ikasleek eginiko hamaiaketakoa banatzen dute parte hartzaileen artean. Abenduaren 10ean Usurbilgo erdigunean egingo da. 10:30ean batuko dira, frontoian.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
[elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ugaitz Agirre.  
**Aldizkari koordinatorra:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

## Helduion/k honi!

**P**ertsonak modu ugarian sailkatu eta taldekatu daitezke, eta modu horietako bat adinaren arabera da. Adinaren arabera umea, nerabea, heldua edo zaharra izan daiteke pertsona bat –zaharrena kasuan, zaharra ala adinekoa? Zer esan beharko genuke? Adinekoa esatea politikoki zuzenagoa da? Ala zaharrak konnotazio ezkorra duelako esaten dugu adinekoa?-

Azken taldearen gaineko zalantzaz gain, beste nobedade baten berri jakin dut Berriar irakurritako albiste batean (“Heldurik zaharrena orain iristen”, 2024-11-24): helduen taldearen barruan beste talde berri bat sortu dela; heldurik zaharrena taldea. Hau da, helduen barruan batzuk gazteagoak eta beste batzuk zaharagoak dira eta orain bereizi egiten dira. Heldurik zaharrena talde berria 60 urtetik gorako pertsonak osatzen dute eta talde handia da, baby boom-eko belaunaldia adin horretara iristen ari delako.

Bizitza osasuntsuaren itxaropena igo delako sortu da talde berri hau eta orain dela urte batzuk 60 urtetik gorakoek ez zituzten ezaugarriak dituzte. Ezaugarri bat autonomia da; adintsuak izan arren ez dira zaharrak sentitzen eta autonomoak dira.

Beste bat erosahalmena dutela. 2008ko krisiak ez zien hainbeste eragin eta austeritate politikek eta enplegu gailerak ere ez ditu harrapatu. 30



“Heldu zaharrenak, adintsuak izan arren ez dira zaharrak sentitzen eta autonomoak dira”.

urte loriatsuak deiturikoak bizi izan zituzten eta igogailu sozialak funtzionatzen zuten garaioak dira. Beraz, aberastasunak bildu dituzte.

Adituek diote talde handi honek ondorioak izango dituela ekonomian eta lan munduan. Kontsumo ikuspegitik, joera handiagoa dute aisialdian, ongizatean, zaintzan eta osasunean gastatzeko, eta ez hainbeste ondasunak erosten.

Elikagaien sektorean zenbait marka konturatuta daude talde hau existitzen dela eta ongi ezagutzen dituzte pertsona

**"ADINAREN ARABERAKO BESTE TALDE BAT SORTU DA: HELDU ZAHARRENAK"**

horien ezaugarriak. Danone, Nestle eta antzeko beste talde handiak hasiak dira talde horri bideratutako produktuak saltzen: gatz gutxiko edo azukre gutxiko jakiak tentsio altua dutenentzat edo diabetesa dutenentzat; proteina, bitamina eta kaltzio gehigarriak dituzten elikagaiak... Autogintzan ere, auto altuagoak egiten hasi dira, errazago sartzeko eta irteteko modua ematen dutenak. Eta Ikea ere hasi omen da errazago altxatzeko aukera ematen duten besaulkiak egiten.

Harrigarria da. Gu heldu zaharrena talde hau existitzen dela ohartu aurretik, merkatua -beti bezala- aurreratuta da eta talde horrentzako produktuak eskaintzen hasia da. Harrapazkan! Aurrea hartzen eta beharrik sortzen espezialistak direnak zein taldetan sartuko ditugu?

## Boluntariotzari buruzko prestakuntza saioa

Abenduaren 27rako antolatu du Asebier gaixotasun arraroen elkarteak, 11:00-14:00 artean Potxoenean. Boluntarioak izan nahi dutenei nahiz boluntariotzaren interesa dutenei zuzenduriko saioa izango da. Izena doan eman ahalko da, [info@asebier.org](mailto:info@asebier.org) helbidean edo <https://forms.gle/Yofm38vQ8NLkkMvb7> helbideko galdetegia osatuta. Trebakuntza saio horretan, “Asebier erakundearen aurkezpen labur bat eskainiko da, gaixotasun arraroei eta desgaitasun-motei buruzko sarrera, eta gaixotasun arraroak dituzten pertsonen interakzioarako eta laguntzarako orientabideak ere eskainiko dira”.

## San Tomas azokarako prestatzen

Abenduaren 15ean ospatuko da, Usurbilgo frontoian. Bertan izango ditugu Ostolaza eta Pujana trikitilariak. Horretaz gain, talo, gaztain errea, gozoak eta bestelako produktuak ikusi eta erosteko aukera izango da. Babarrun zein sagardo ekoizpen partikularren arteko lehiaketak ahaztu gabe. Bi lehiaketetako sariak honako hauek izango dira: 200 euro eta txapela lehengo sailkatuei, 100 euro bigarrenrei eta 50 euro hirugarren sailkatuei. Bi lehiaketa hauetan parte hartzeko NOAA!ra, babarrun kilo bat eta 6 sagardo botila aurkeztu beharko dira. Izena emateko azken eguna, abenduaren 10a.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTA PAX 7, 650 31 31 91

**txirriStra**  
TABERNA  
· PLATER KONBINATUAK  
· BOKATAK · PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) USURBIL

# Liburutegiko urteko azken ekintzak

Hiru proposamen dakartza Sutegi udal liburutegiak urtea agurtzeko.

## Abenduak 11, asteazkena

- 18:00 "Abentura zirraragarria" ipuin kontaketa musikatua Perli eta Koxkolorekin.
- Zehaztasunak: "Ikuskizun berri honetan, Perlik eta Koxkolo bidaia zoragarri bat biziko dute munduko hainbat uharte zeharkatuz. Ipuin musikal berri bat: istorioz, abenturaz, pertsonaiak, musikaz, dantzaz eta umorez josia. Hurbiltzen diren hurrekabentura zirraragarriak bizitzeko aukera paregabea izango dute, ipuinen, musikaren eta dantzen laguntzarekin. Istorio eta abentura liburuei omenaldia: Verne, Stevenson, Defoe. Abenturaz beteriko ipuin musikal dibertigarria, elkar hobeto ezagutzen eta gehiago maitatzen ikasteko. Haurren irudimena piztuko dugu eta familia giroan primeran pasatuko dugu".
- Nori zuzendua: 6-8 urte arteko haurrei.

## Abenduak 13, ostirala

- 19:00 "Etxe bat, norberarena" Yolanda Arrieta eta Peru Galbete herrikideen solasaldi poetiko musikatua.
- Zehaztasunak: "Yolanda Arrietak bere azken lanaren irakurketa-solasaldia proposatuko digu. Habiaren babesa. Bake operatzailea. Aukerako ohikotasuna. Nondik-abiatur berri bat. Nora-itzuli atsegin bat. Ezeren faltarik ez. Dena bertan. Peru Galbetek musikaz eta kantuz lagunduko dio. Itxura ona du, ezta?".

## Abenduak 23, astelehena

- 11:30 Irakurketa solasaldia 11 urtetik gorakoentzat. Roald Dahlen "Sorginak" izango dute mintzagai.
- Zehaztasunak: "Irakurle, seguru asko oso pertsona serio eta formalak zara eta ez duzu sorginengan sinesten. 'Utikan, asmazio horiek!', esaten duzu serio asko. Sorginen kontu



Perlik eta Koxkolo 'Abentura zirraragarria' saioa eskainiko dute hilaren 11n.

horiek guztiak ez dira txoriburu gorabeherak besterik. Sorginak! Puaf! Kontu aldrebesagorik! Bada, sentitzen dugu esan beharra, baina egon badaude. Irakurri besterik ez duzu, bestela, Roald Dahl-en liburu hunkigarri hau: berehala pasatuko zara zure irribarre ironiko horretatik sorpresara, eta sorpresatik gorputz guztia dardarizoka jarriko dizun tranze urdurira. Sorginengan ez duzula sinesten? Bada, bel-

durti baten aitzakia da hori, liburu hau irakurtzera ausartzen ez den kakajario batena".

### Oharra:

Azken saio honetan parte hartu nahi dutenentzat liburuak eskuragarri Sutegin bertan.

### Ekitaldiotarako izen-ematea:

Aurrez, udal liburutegian.

### Antolatzailea:

Sutegi udal liburutegia.

## 'Ama ta asunak' zikloa Emakumeon Etxean

### Abenduaren 12tik 19ra

June Baonza Pagaldai artistaren 'Ama ta asunak' proiektuak amatasunaren ideala deserai ki nahi du, amatasunaren praktika bizigarriagoa egiteko erreferente eta diskurtso ugari eskaintzarekin batera.

- Erakusketa: 'Ama ta asunak'.

- Astelehenetik ostiralera 10:00-13:00 artean; astearte eta ostegunetan, 17:00-20:00 artean ere bai.
- Abenduak 12, 18:00 Irekiera eta egilearekin solasaldia.
- Abenduak 19, 18:00 Hitzaldia: "Amatasunak, beste amatasunak eta ahaidetasun berriak",

Parean elkartaren eta Miren Arangurenaren eskutik.

### Emakumeon Etxea

#### Zerbitzuak:

#### Abenduak 11, asteazkena

- 15:00-18:00 Aholkularitza juridiko eta psikosoziala.

#### Abenduak 16, astelehena

- 17:00-19:00 Sexu-aholkularitza zerbitzua.

### Informazio gehiago:

- Telefono zenbakia: 943 371 112.
- E-posta helbidea: emakumeonetxea@usurbil.eus

### Ordutegia:

- Astelehen, asteazken eta ostiraletan: 10:00-13:00.
- Astearte eta ostegunetan: 10:00-13:00 / 17:00-20:00.
- Helbidea: Belmonte kalea, 8 (Pelaioenea).

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22  
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

943 361182  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL



Neguko zein gabonetako apaingarriak prestatzen jo eta su dabilta Belmonte Auzo Elkarteko kideak.

## "Adin ezberdineko kideak ditugu taldean eta hori oso aberasgarria da auzoarentzat"

### BELMONTE ELKARTEA KALEZAR

Pelaioenea inauguratu zutenetik eta asteartero bezala, mahai inguruan aurkitu ditugu Belmonte elkarteko lagunak ekintza berriak planifikatzen eta gabonetako apaingarriak prestatzen. Euren eguneroko martxaz jakin nahi izan dugu oraingoan.

**Martxan da Pelaioenea eta Belmonte Auzo Elkarteko kideok erlanean hasi zarete. Erraz elkar-tu zarete? Zenbat zarete? Nola-koa izan da hasiera?**

Pelaioenea inauguratu zenean ekintzetako talde bat sortu genuen, hamar bat auzotarrek osatua. Adin askotako pertsonak ditugu taldean eta oso aberasgarria da auzoarentzat, izan ere, ilusio eta denetariko beharrak asetzen hasi gara. Talde honetan ekintza desberdinak definitu ditugu auzotarren arteko harremanak sustatzeko asmoz. Ekintza batzuk Pelaioenea eraikinaren barnean egiten ditugu eta beste ekitaldi batzuk, berriz, kanpoaldean, auzoan. Prin-

tzipioz asteartero elkartzen gara eta beharra izanez gero, ostegunetan ere bai. Ekintza konkreturen bat baldin badaukagu, horren lanketa lehenesten dugu edota datozenak antolatu. Ekintza irekiak izaten dira, beraz, ekintza bakoitzera interesa duen auzotar oro gerturatu daiteke. Denbora gutxi daramagu, oraindik egokitze prozesu batean gaude, ikasten, eta ekintzak egin ahala konturatzten gara zein hobekuntza egin behar ditugun. Hala, pixkanaka-pixkanaka lanean ari gara.

**Espazioa zuek nahi zenuten bezala geratu da, azkenean?**

Bi talde, eta beraz, bi proiektu elkarbizi gara Pelaioenean. Hasieratik, espazioak bien beharrak asetu behar zituen. Behar hauek talde desberdinetan landu ziren Elhuyar enpresaren laguntzaz, eta honen emaitza izan da Pelaioenea eraikina. Normala den moduan, denon beharrak

**"ABERASGARRIA DA AUZOARENTZAT; ILUSIO ETA BEHARRAK ASETZEN HASI GARA"**

ez dira guztiz asetu eta jende asko biltzen dituen ekitaldiak egiteko estalpea duen espazio handiago bat botatzen dugu faltan auzotarrok.

**Espazioa jada prest dago erabili ahal izateko. Nola antolatu duzue? Zer aurki dezakete auzotarrek bertan?**

Belmonte Auzo Elkarteko edonork erabil dezake eraikina. Alde batetik, beheko solairuan gela bat dago erreserbatu daitekeena eta gaitzetzeko espazioa erresebarik gabe erabili daiteke. Azken honetan, mahaia, aulkiak, kafe makina, etab. daude edozein momentutan elkartzeko. Bestetik, goiko solairuan espazio bakarra dago, espazio zabal bat, aurretiaz erresebatuta erabili daitekeena.

**Zein motatako ekintzak hasi zarete antolatzen?**

Urteko ekintzetako taldea sortu genuenetik hainbat ekintza antolatu ditugu. Aurtun, lehenik, auzo bazkaria antolatu genuen, hasiera bat emateko egokia iruditzen baitzitzaigun auzotarron arteko kohesioa sustatzeko. Ondoren, San Juan jaiak zirela eta, auzoa apaintzeko asmoarekin emakume talde bat elkartu ginen. Helburua etxeko trapu zaharrak ekarri eta josteko makinarekin elkarlanean jaietako banderatoak sortzea izan zen. Udazkenean, berriz, gaztain festa antolatu genuen. Eguraldi kaskarra izan genuen, baina, hala eta guztiz ere, gaztain kilo modoa jan genituen giro ederrean. Jarraian, yoga saioa antolatu genuen azaroko larunbat goiz batean. Guztiz arrakastatsua izan zen eta gosari goxo batekin amaitu genuen. Azkenik, neguari begira, eskuz eginiko apaingarriak egiteko elkartzen gara eta momentu honetan horretan gabilta.

**Zein helburu dituzue?**



Azaroan egindako yoga saioan hainbat auzotar Pelaiouena eraikineko bigarren solairuan erlaxatzen.

→ Helburua da auzotarrentzat interesgarriak diren ekintzak elkarlanean antolatzea eta gazte zein helduak elkar-tzea. Ekintza batzuk epe ertainekoak izaten dira, batez ere, hainbat saio behar direnak ekintza horiek hasi eta amaitzeko. Aldiz, beste batzuk egun puntualetara mugatzen dira. Batzuetan, auzotarron artean; beste batzuetan, kanpoko profesional batek gidatuta.

#### Urtea amaitu aurretik aurreikusi duzue jarduera edo ekintzaren bat?

Lehen aipatu moduan, negu giroko apaingarriak sortzen gabiltza eta, agian, inprobisatutako ekintzaren bat eduki genezake. Hala ere, ezin dugu ezer aurreikusi eta zehaztu alde horretatik.

Zeintzuk dira datorren urtetik aurrera aurreikusi dituzuen ekintzak eta asmoak?

Datorren urteari begira, aurtengo esperientzia oinarritzat hartuta, ideiak mahai gainean jarri ditugu eta horiek definitu eta antolatzen gabiltza. Aurtengo saioak zein tailerrak errepikatzea aurreikusten dugu eta, horiez gain, bestelako ekintza irekiak antolatzea espero dugu. Sorpresaren bat ere egon daiteke, baina ez dugu ezer aurreratuko.

#### Auzoko jaien antolakuntzan ere parte hartuko duzue?

Gure auzoan jaiak antolatze-ko gazte talde bat dago, Kalezarko Jai Batzordea, hain

**"HELBURUA DA AUZOTARRENTZAT INTERESGARRIAK DIREN EKINTZAK ELKARLANEAN ANTOLATZEA"**

zuzen ere, eta beraiek dira San Juan jaien antolatzaileak. Gu, Belmonte Auzo Elkarteak, prest gaude elkarlanean ekintzaren bat sortzeko edota laguntza emateko. Printzipioz, aurtun bezala, auzo apaintzen jarraitzeko asmoa daukagu.

#### Zer-nolako balorazioa egiten duzue orain artekoarekin?

Pozik eta indartsu gaude auzoan hartu dugun dinamikaz eta aurrerantzean ere hainbat ekitaldi antolatze-ko asmoa dugu, poliki-poliki pauso txikiak emanez.

**"IDEIAK MAHAI GAINEN JARRI DITUGU ETA HORIEK DEFINITU ETA ANTOLATZEN GABILTZA"**

## Baimen eskaera Kalezarren ibilgailuz mugitzeko

Trafikoa mugatzeko sistema berria probaldian jarria du Usurbilgo Udalak Kalezarko kale nagusian, Belmonte kalean. Bertan ibiltzeko baimena izango dute Kalezar auzoa kalearen hasieratik 19. zenbakira arteko etxebizitzetan errol-datutakoek eta oinarritzko zerbitzuek zein larrialdi zerbitzuek.

#### Abenduaren 20a baino lehen, udaleko harrerak

Horiez gain, Udaletik jakinarazi dutenez, "salbuespeneko baimenak ere emango dira, baina kasu horietan, espresuki egin beharko dute eskaera udalean, arrazoiak azalduz" abenduaren 20a baino lehen; goiz partean, "udaleko harreraren eskatu ahal izango da, eta ezin duenak arratsaldean Udaltzaingoaren bidez eskatzeko aukera izango du".



Sistema berria probaldian da Kalezarren.


**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**ARTZABAL**  
BASERRIA • JATETXEA  
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

• EGUNEKO MENUA  
• KARTA  
• RAZIOAK  
• HANBURGESAK  
• BOKATAK

Instagram Facebook

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8, USURBIL  
**943 37 00 08**



GuraSOSeK eta Anerreka ingurumen elkarteak antolatutako zuten aurreko asteko bilera informatiboa.

## Erraustegiari buruz BioGipuzkoak eginiko txosteneko datu kezkarriekin ohartarazi dute

BioGipuzkoak Zubietako erraustegiari buruz eginiko ikerketa epidemiologikoak Usurbili lotuta plarazaturiko datu kezkarriekin berri eman zuten GuraSOSeK eta Anerreka ingurumen elkarteak, aurreko astean Sutegin deitutako informazio bileran.

Bi ikerketa epidemiologiko egin ditu orain arte Gipuzkoako Foru Aldundiak haiek deitutako "Gipuzkoako Ingurumen Zentroari" buruz, alegia, Zubieta gainean eraiki eta piztu zutela bost urte bete berri dituen erraustegiari buruz. Lehenengoa, 2017-19 artekoa da, bigarrena 2019-24 artekoa.

Txosten hauen egilea, osasun gaien ikerkuntza sustatzen duen BioGipuzkoa izan da, ikertzaile nagusia Jesus Ibarluzea Maurologoitia. Lau ikerlan jorratu dituzte; atmosferako immisioa, biomarkatzaileak, biztanleriaren osasuna eta tokiko elikagaiak eta lurzorua.

Txosten hori, iragan maiatzaren 9an aurkeztu zuten foru ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok eta

ikerketaren arduradun nagusi Jesus Ibarluzea Gipuzkoako Batzar Nagusietako Jasangarritasun Batzordean.

"Ibarluzea lasaitasun mezua helarazi zuen", kutsadura arazo larriak ez zegoela erraustegia inguratzen duten udalerrietan. Bertan "zabalduko mezua ez dator bat txosteneko emaitzekin", salatu zuten GuraSOSeK eta Anerreka ingurumen elkarteak ostiral iluntzean Sutegin dei-

**ANERREKA ETA GURASOSEN USTEZ, "TXOSTENAK BESTELAKO ERREALITATEA DESKRIBATZEN DU"**

tutako informazio bileran. Txostena arakatzeko aritu dira hilabeteotan Sutegin informazio bileraren deitzaileak eta kezkarritzat jo zituzten datuen berri jaso dute. Txosteneko orrialdeetan barnerratu gero, bestelako errealitatea deskribatzen dute inguru honi buruz. Datuak era nahasian aurkeztu dituztela, zehaztasun falta nabarmenekin eta emisioen gaindiketak baztertzera jotzen duela diote txos-

**"TXOSTENAK EZ DITU ERRAUSTEGIAN SORTUTAKO TOXIKO ASKO KONTUAN HARTZEN"**

ten horri buruz. "Ez ditu kontuan hartzen, erraustegian sortutako toxiko asko".

### Kutsatzaileen handitzea

Ikerlaneko hainbat datu eza-gutarazi zituzten, deitzaileen esanetan, egileek Gipuzkoako Batzar Nagusietan nabarmendu ez zituztenak. Hitza hartu zuten Anerreka ingurumen elkarteak eta GuraSO-Sen ordezkariak, Felix Olaetxeak eta Joseba Belaustegik hurrenez hurren. Haiekin zen baita, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldearen dinamikan parte hartu izan duen Xabier Mitxelena medikua.

Gogorazi zuten, BioGipuzkoak bi eremu aztertu ditu; batetik, erraustegiaren bueltako udalerriak; Usurbil, Lasarte-Oria edota Andoain, baita Goierriko zenbait udalerri ere. Bi eremuotako hainbat herritarren odola eta gernu azterketetan oinarritu dute ikerlana; usurbildar hainbatena bildu dute tartean. Orohar, ikerlanaren arabera, "dioxinen, furanoen, dl-PCBen baturari eta dioxina motako konposatu guztien baturari dagokienez," alde esanguratsurik ez dagoela dioten arren, bada salbuespen bat; Usurbil.

Emaitza kezkarriak biltzen ditu ikerlan horrek udalerri honi dagokionean; dioxina eta PCB-en handitze esanguratsua laginak jaso zituzten usurbildar guztien kasuan, "non bataz besteko balioa 3.20 pgTEQ/g igo den (1.16 pgTEQ/g dioxinetan eta 2.04 pgTEQ/g dl-PCBetan), eta horrek %36,25eko gehikuntza dakar dioxinen kasuan eta %63,75ekoa dl-PCBen kasuan". Sutegin zehaztu zuten, "dioxinen kontzentrazioa %40" hazi da 2019-23 artean".

### Toxico Watch fundazioarekin biltzeari uko egin zioten

Paraleloki, 2019. urteaz geroztik, erraustegia piztu aurretik laginak hartu eta



erraustegiaren eragina iker-tzen hasi zen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren eskariz Holandako Toxico Watch fundazioa. Ordutik, erraustegia martxan jarri aurretik eta ondoren, urtez urte aritu da behatzen Zubieta gaineko instalakuntza eragiten ari den kutsadura. Kutsatzaileen hazkuntza nabarmendu dute urtez urte. Aurten, gainera, urrats berri bat eman dute. Izan ere, 2024ko maiatzean Gipuzkoako Batzar Nagusietan agerraldia egin zuten ikerketa honen egileek. Maiatzaren 27rako zuten hitzartua bilera hau. Data hau gogora ekarri zuten ostira-lean Sutegin. Izan ere, hiru aste lehenago, "hilaren 9an bere agerraldia eskatu zuen foru ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok". Bileran hartan aurkeztu zuten Gipuzkoaren txostena.

ToxicoWacheko kideek bilera galdegin zuten BioGipuzkoaren txosteneko egileekin. "Ezzen erantzunik egon", Sutegiko bileran berri eman zuten.

### Kontrolatzen ez diren substantzien isurketa

BioGipuzkoaren datuak eskuartean eta maiatzean eginiko aurkezpena kontuan hartuta, Sutegiko informazio bileran herritarrek erraustegiarekiko duten pertzepzioa aldaraztea zela helburua ohartarazi zuten, errealtatea oso bestelakoa dela deskribatu zuten arren. Izan ere, gogora ekarri zituzten, erraustegia piztu zutenetik bost urteotan izandako matxurak, geldialdi ez programatuak eta ondorioz abiatze bakoitzean eragindako kutsadura handiagoa, Arkaitzerrekako isurketak, Nafarroako Artaxoara helarazitako hondakin arriskutsuak...

Erraustegiaren kontrol faltasalatu zuten. "Kontrolatzen ez diren substantzien isurketa" salatu zuten.



"Arazo handia dugu", eta zerbait egin beharra dagoela diote.

## Erraustegiaren kontrol demokratikorako mahaia osatzea proposatu dute

BioGipuzkoak Zubietako erraustegiaren eraginari buruz aurkezturiko Usurbilgo datu kezkarrien aurrean, bi proposamen aurkeztu zituzten GuraSOSeK eta Anerreka Ingurumen Elkarteak Sutegin eginiko informazio bileran.

"Beverly Hillseko putre-funts batek gidatzen duen, ITV pasako ez lukeen kotxe zahar eta kutsatzaile baten barruan gaude, aldapa behera, ziztu bizian, pareta baten aurka jotzeko arriskuan. Zerbait egin behar dugu! Ezin dugu kotxe hori denbora luzean zirkulatzeko utzi eta urgentziazko konponketa batzuk egiteko eskatu behar dugu. Dagoeneko motorretik ihes egiten dion keak gure odola pozoitu du. Bestela..."

Adibide horrekin deskribatu nahi izan zuten GuraSOSeK eta Anerreka Ingurumen Elkarteak udalerririk honetako erraustegiarekin bizi duen egoera, ostiral iluntzean Sutegin deitutako informazio bileran.

"Arazo handia dugu", ohartarazi eta zerbait egin beharra dagoela gaineratu zuten. Zubietako erraustegia sustaturiko Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz, azpiegitura horri buruz BioGipuzkoak eginiko azterketa epidemiologikoari lotutako emaitza kezkarriak aurkeztu zituzten Sutegin.

### Kontrol demokratikoaren mahaia

Testuinguru horretan, datu horien aurrean, zerbait egin beharra adierazi zuten eta bi proposamen aurkeztu zituzten. Batetik, kontrol demokratikoaren mahaia osatzea galdegin zuten; elkarkidetza iraunkorkekoa izango dena, eredu irekia eta parte hartzailea izango duena, auditoria independentea bideratuko duena, unean uneko datuak jasotzea ahalbidetuko duen protokolo adostua diseinatuko duena, koordinazio eta parte hartze mahaia izango dena edota duela bost urtetik martxan den erraustegiaren itxieraren epeak, baldintzak... adostuko dituen.

## ZUBIETA GAINKO INSTALAKUNTZAREN INGURUMEN BAIMENA BERRIKUSTEA PROPOSATU DUTE

Zubieta gaineko instalakuntzaren ingurumen baimena berrikustea galdegin zuten ere. Horren baitan, substantzia guztien isurketa mugak gehitzea, kontrola gehitu eta bermatzea (zer, nola erre...), udal hondakinak sartzen direla soilik bermatzea, edota erraustegiak guztion osasunean duen eraginari lotutako jarraipena ikerketa iraunkorra sustatzea eskatu zuten.

### Europak dioena aintzat hartzea

Erraustegiaren ingurumen baimena Europako auzitegiaren epaira egokitzea ere galdegin zuten. Izan ere, BioGipuzkoaren ikerlana ezagutarazi zen garai beretsuan, 2024ko maiatzean, Italiako Milango altzairu-fabrika baten aurkako ebazpena kale-ratu zuen justizia europarrak, Sutegiko informazio bileran berri eman zuten. Antza, lantegi hau inguruko biztanleengan izaten ari zen eragin kaltegarria tarteko, herritarrek auzitegietan salatu zuten lantegi hau.

Horren aurrean, epaitegiak dio, ingurumena eta osasuna babestu behar direla, zuhurtzia eta prebentzio irizpideak aplikatu behar direla edota zientzialarien datuak aintzatzat hartu behar direla. Epai honek dioen horretara egokitzea galdegin zuten baita Zubietako erraustegiaren ingurumen baimena.

"Askok dago erabakitzeke", gogorarazi zuten Sutegiko ekitaldian. Aurrera begira, udalekin biltzeko asmoa agertu zuten, baita Gipuzkoako Batzar Nagusietara joatekoa ere. Ildo beretik, hitzordua baliatu nahi izan zuten Anerreka Ingurumen Elkarteak erraustegiarekiko soilik ez, Usurbilgo Ucin lantegiarekiko kezka ere agertzeko. "Filtro berriekin" ekoizpena bikoiztu duela ohartarazi zuten, isurketa muga nabarmen gaititu dutela jakinaraztearekin batera azkeneko urtebetean.



650 Usurbil Bizi Otarra Hurbilagoren Udazkeneko Azokan aurkeztu zuten.

## "Otar eder-ederrak izango ditugu aurten ere"

650 Usurbil Bizi otarra aurkeztu zuten sustatzaileek abenduaren 1eko Hurbilagoren Udazkeneko Azokan.

Usurbilgo herri ekoizpenaz eta sorkuntzaz egoki asko hornitua dator hirugarrenez, abenduaren 1eko Hurbilagoren Udazkeneko Azokan Usurbilgo Udalak, Kulturguneak eta Hurbilago elkarteak ekoizle parte hartzaileekin ikusgai jarri eta aurkezturiko 650 Usurbil Bizi Otarra.

Bi dira ekimen honen helburuak, antolatzaileek nabarmendu zuten moduan; "Usurbilgo ekoizleen eta kultur sortzaileen lanak ezagutaraztea eta herriko saltokietako erosketak bultzatzea". Elkarlanean bideratzen dute egi-

tasmo hau, aipatu eragileez gain, otarrok prestatzeaz arduratzen diren Udaregi ikastolako DBH4ko ikasleekin. "Otar eder-ederrak izango ditugu aurten ere. Espero dugu zuen gustukoak izatea", adierazi zuten aurkezpenean. Zozketan parte hartzerantz animatu gintuzten sustatzaileek. "Parte hartu herriko dendetan, herriko generoa erostera".

Aste hasieratik abenduaren 28ra arte, herriko sorkuntza eta ekoizpen produktuez hornituriko saskien zozketan parte hartzeko txartelak eskuratu ahalko dira, herriko sal-

tokietan eginiko 10 euroko erosketen truke. Hemen dituzue xehetasunak:

### 650 Usurbil Bizi otarra

- 100 otar zozkatuko dira.
- Parte hartuko duten ekoizle eta sortzaileen kopurua: 30 (kultur sortzaileak, ekoizleak 12). Iaz baino bat gehiago.
- Otarreko produktuen zerrenda: Aginaga Sagardotegia, Aialde Berri sagardotegia, Ameba, Arkaitz Portullarrume Unanue, Arrillaga-Txiki baserria, Arrospide barazkiak,

## "SASKIEN ZOZKETAN PARTE HARTZEKO TXARTELAK SALTOKIETAN DAUDE ESKURAGARRI"

Basatxerri, Borda Txuri-Lumagorri, Bordatxo esneak, Eider Makazaga Estella, Elhuyar Fundazioa, Iñorkiñak, Ione Iruretagoiena, Ixabel Agirresarobe Arzallus, Jakoba Errekondo, Jose Mari Zaldúa-Sari Frutak, Josune Estrella Arranz, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Maider Alzaga, Mihise, NOAUA! Kultur Elkartea, Odolaren Mintzoa, Olatz Zabaleta, Osto eta Ale, Rukula, Saizar sagardotegia, Urdaira sagardotegia, Usurbilgo Sagastia, Viafara eta Zaparra.

- Txartelak eskugarri egongo diren dendak: Ane ile-apaindegia, Aizpurua okindegia, Alkartasuna kooperatiba, Arruti harategia, Artzabal jatetxea, Enar estetika, Esnaola janaridenda, NI ile-apaindegia, Intza ile-apaindegia, Iratze naturdenda, Laurok, Lizardi liburu-denda, Lurda, Opilgoxo, Otargoxo, Usurbil optika.

### Egutegia

- Abenduak 2-28: Gabonetako otarren zozketan parte hartzeko txartelak eskuratzeko aukera, herriko saltokietan eginiko 10 euroko erosketen truke. Txartelean izen-abizenak idatzi eta denda horretan egongo den kutxan sartu behar da. Ekimen honetan parte hartuko duten saltokietan kartelak jarriko dituzte, bezeroek identifika ditzaten.
- Abenduak 28: Otarren zozketa saltokietan. Saltoki bakoitzak bere zozketa egin eta sarituari jakinaraziko dio egun berean.
- Abenduak 29: 13:00 Otarren entrega ekitaldia Usurbilgo frontoian.

Informazio gehiago: [gertuago.eus](http://gertuago.eus)

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
urdaintzi@euskalnet.net  
IT-ak egiten dira  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**Parti**  
Parti 2022  
Iatetxea  
bazkariak EGUNERO  
afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361

**Otar-Goxo**  
Elizagaia  
Zubiarenea 2, 943 36 55 81

**ZENDOIA**  
ENEAtaberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

# Praktika onak sustatzen: TXIMINIAKO ERRAUTSAK

- ▶ Errefusaren beste ontzi bat eskatu: ez atera poltsan
- ▶ Errautsak hoztu ondoren ontzian sartu, eta dagokion igandean atera



Informazio gehiago: Atez ateko bulegoa Joxe Martin sagardia plaza z/g (udaletxea)  
900 776 776 / 606 501 024 atezate@usurbil.eus



Usurbilgo Udala

## USURBIL 58 Dokumentala

### Altxor txiki bat, opari handi bat

2023ko udazkenean, Usurbilgo irudi zirraragarri batzuk topatu genituen Euskadiko Filategian. Juan Illarramendik grabatu zituen 1958 eta 1960 urteen artean. Orain arte ikusi gabeak. Sutegiko estreinaldi arrakastatsuen ondoren, dokumentala eskuragarri duzue.

### Dokumentala, salgai

'Usurbil 58' argitalpena DVD batekin eta USB memoria batekin osatzen da.

Batean zein bestean, bi artxibo topatuko dituzue:

- Juan Illarramendiren irudi originalak. 20'11".
- Irudi horiek baliatuz osatu dugun dokumentala: 51'16".

**NOAUA!**ko bulegoan, **Lizardi** eta **Laurok** liburudendetan salgai.

**Prezioa:** 10 euro.

\*NOAUAko bazkideek 8 eurotan eskura dezakete, baina soilik NOAUA!ko bulegoan.



# Denboralearen ondoren, Erle Eguna plazara

Haize denboraleagatik azaroaren 24an bertan behera utzi behar izandako 23. Erle Eguna azaroaren 30ean ospatu zuten, giro epel askoarekin.

Haize denboraleak geroratu-tako 23. Erle Eguna azaroaren 30ean ospatu zen azkenean, giro epel askoarekin. Goizean zehar, urteko azokarik gozoena egin zen. Jendea ikusmiran eta erosketak egiten aritu zen. Ikusmin handieneko unea, ohi bezala, 13:30ak aldera heldu zen, Salvatore elizako kanpandorretik hegan etorritako erleak ekarritako sariekin. Goizean zehar, jokoan izan-

dako txapelketen sariak banatu zituzten. Erlea inspirazio iturri zuten Sutegin ikusgai jarri zituzten Udarregi ikastolako, Aginaga zein Zubietako eskoletako 0-12 urte artekoen marrazkiak. Haietatik sei saritu zituzten. Sariak ikaste-txeetara helaraziko dituzte. Bestalde, Euskal Herriko Ezti Txapelketa ere jokatu zen. 51 ezti-poto lehiatu ziren. Sarituen berri duzue segidan:



Euskal Herriko Ezti Txapelketako aurtengo sarituak.

## EH-ko 23. Ezti Lehiaketa

### Milalore motako lehiaketa:

1. saria: Juan Elgarresta.
2. saria: Beñat Elorza.

### Ezti argiko lehiaketa:

1. saria: Ibai Ormaetxea.
2. saria: Markel Lizasoain.

### Ezti iluneko lehiaketa:

1. saria: Beñat Elorza.
2. saria: Igor Merino.

### Marrazki lehiaketa:

- 0-2 urte: Jon Arruti Añorga.
- 3-4 urte: Jon Kerexeta Uribe.
- 5-6 urte: Nile Vilchez.
- 7-8 urte: Maddi Soroa.
- 9-10 urte: Malen Camarero.
- 11-12 urte: Alex Garcia.



Urteko azoka gozoenak hartu zuen plaza.



Gozogintzako postuan gogotik aritu ziren lanean Udarregiko DBH4ko ikasleak.



Erlea inspirazio iturri, Sutegin ikusgai izan ziren gaztetzkoen marrazkietan.



Ikusmin handieneko unea; erlea sariak ekartzen frontoirantz.

# Sektorearen erakusleiho, Udazkeneko Azoka

Hurbilago elkarteak antolaturiko Udazkeneko Azokak herriko nahiz inguruetako artisau eta dendariak bildu zituen abenduaren 1ean frontoian.

Dendari edota artisauen elkargunean bilakatu zuen frontoia Hurbilagok antolaturiko Udazkeneko Azokak. Ireki eta gutxira hasi zen etortzen jendea eta joan-etorriek ez zuten etenik izan amaierara arte. Giro epelari esker, hainbat herrikide eta bisitari erakarri zituen hitzorduak frontoian kokaturiko gunera.

Arropak eta osagarriak, bi-txiak, kultur sorkuntza... as-

kotariko eskaintzak hartu zuen frontoia. Hurbildutako jendeak osteratxoa egin, postuez bestalde zirenak ezagutu, harremandu, haiek zuten eskaintzari erreparatu eta hainbat erosketa egiteko baliatu zuen azoka.

## Tokikoaren alde

Herri ordezkaritza zabala erakarri zuen hitzorduak. Lizardi liburudenda, Sleepy Mimosa,



Dendariak eta artisauak hartu zuten frontoia abenduaren 1ean.

Ione Iruretagoiena, Xükâ eskuz eginga, Ameba, Zaparra edota Ixabel Agirresarobe Arzallusek parte hartu zuten. Haiez gain, Ziortza gazte elkarteak jarritako postuak ere ikusmina sortu zuen. Izan ere, eskumuturrekoak egiteko tailerra antolatu zuten. Gaztetxoek lasaitasun giro ederrean eta

kontzentrazio maila altuan aritu ziren eskulan hauetan. Azoka, gainera, trukerako eremu izan zen. Hain zuzen, erosketaren bat egitearen truke, bertako sagardoa eta gaztainak doan dasta zitezkeen. Ohiko herritar kuadrilak presaturiko jakiok eguerdi partearako agortu egin ziren.



Eguerdie partean, jende ugari ibili zen postuz postu.



Frontoia artisau eta bisitarien topagune izan zen.



Usurbilgo dendarien eta sortzaileen parte hartzea erakarri zuen azokak.



Ziortza gazte elkarteak eskumuturrekoak egiteko tailerra eskaini zuen.



Euskararen Galako parte hartzaileak, Unai Gaztelumendiren marrazkiekin.



Euskaraldiko herri batzordeko kideak, Eliza Zaharreko oholtzan.

## Euskararen aldeko gaualdi oparoa Aginagan

Euskararen Gala ospatu zuten hilaren 30ean Eliza Zaharrean. Goizaldera arteko eskaintza entretenigarria izan zuten.

Galaz jantzi zuten lekua eta galaz plazaratu zuten geure hizkuntza. Euskara izan zuen ardatz nagusi, eta umore ezinhobea noski, azaroaren 30ean Aginagako Eliza Zaha-

rean laugarren urtez segidan ospaturiko Euskararen Galak. Euskararen Astearen baitan antolatutako hitzordu nagusiak elkargunea bete zuten, goizaldera arte luzaturiko ikuskizun-

nen ikuskizunaz gozatzeko. Izan ere, ezohikoa da egun eta oholtzan berean, sorkuntza alor ezberdinetako artistak eta formatu ezberdinetako emandaldiak biltzea. Tokiko nahiz urrunagoko euskal sortzaileen topagunea izan zen aipatu eremua. Hemen, parte hartu zuten artisten zerrenda: Idoia Torregarai, Ander Malbadi eta Julen Portillo, Asier Kidam magoa, Unai Gaztelumendi marrazkilaria, Zoe kontortsionista, Ines Osinaga, ApanRapa, SuTaGar taldeko Aitor Gorosabel & Xabi Bastida musikariak, Las Koldadas,

Danna Lux, Gata al cuadrado, Dj Aritz&Ilargi...

### Euskaraldiaren aurkezpena

Euskararen Egunaren aurreko larunbat gauetz ospatu ohi den gaualdian musikak, bakarrizketek, antzezlanak, parodiak tartea izan zuten. Baina 2025eko Euskaraldiari ere toki egin zioten. Izan ere, herri batzordeak ekimenaren dinamizazio lanetan parte hartzeko gonbita egin zuen. Abenduaren 10ean, 18:00etan Po-txoenean biltzeko deia egin dute berriz. Maiatzean egingo da laugarren Euskaraldia.



Kantu Taldea urteko azken ohiko kantu-jiran.

## Azken biraren ondotik, kantu-bazkariarekin agurtuko dute urtea

Urteko azken biran plazaratu ziren azaroaren 30ean Euskal Kantu Taldekoak belaunaldi gazteenaren parte hartzearekin. Urtea agurtzeko, ordea, kantu-bazkaria antolatu dute

abenduaren 15ean 13:30ean Artzabal jatetxean. Bankako Menditarrak taldea gonbidatu dute hitzordura. Abenduaren 10a baino lehen eman behar da izena Artzabalen.



"Ostirala iritsi da!" ikuskizuneko une bat.

## Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore laukoteak gaztetxoek txunditu zituen

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore kiroldegian izan ziren abenduaren 1ean "Ostirala iritsi da!" lana aurkezteko. Ikuskizunean, Txapas zarautarra omendu zuten ikastole-

tako abestigintzan urte askoan egindako lanagatik eta Euskaraldia herrian sustatzen ari den herri batzordea ere omen-du zuten pailazoek. Ezti-poto ederra jaso zuten opari.



Zumarte Musika Eskolak 40 urte bete ditu eta lehen ospakizuna aurreko astean egin zuten. ARGAZKIA: ZUMARTE MUSIKA ESKOLA.

## "Hemen nahi zaituztegu beste 40 urtez edo gehiagoz"

Ospakizunen ziklo betean sartu da Zumarte Musika Eskola, aurreko asteko hitzorduarekin. Suziri eta guzti, behar bezalako txupinazoa jaurtita ekin zioten betetako 40 urteko ibilbideari gorazarre egiteko ekainera arte luzatuko duten tarteari.

Zumartetik helarazitako irudiotan ikus dezakezuen moduan, talde argazki handi bat atera zuten ostegun iluntzean Mikel Laboa plazan, eta elkarrekin kantuan aritu ziren. Eguraldia tarteko, astebete atzeratu behar izan zuten Santa Zezili egunaren (musikarien egunaren) bezperako kalejirarekin ekin zioten Zumarte paretik hitzordu honi eta ibilbide horretan zehar, geldialdi nagusia izan zuten frontoi atzealdean, "Egun da Santi Mamiña" abesti ezagunaren erritmora sortutako bertsoak elkarrekin abesteko.

40. urtemugari gorazarre egiten diote bertsook, urteurreneko ospakizunetan murgiltzeko gonbita plazaratzearekin batera.

**"Eskerrik onena herri honi, musika eskola bat oparitzeagatik"**  
"40 urte, erraz esaten da baina ez da makala", zioen abesten hasi aurretik, Zumarteko lehendakari Agurne Alkorta. Hazten eta hazi ahala sendotzen joan den proiektu gisa definitu zuen musika eskola eta ikuspegi horretatik jorratu zuen lau ha-

markada hauen gainbegiratu. "Duela 40 urte txistulari batzuketikari begira irudikatzen ditut, musika eskola bat sortzeko ideia horrekin, tokirik gabe, ikasle gutxi batzuekin. Halere, gogoz eta ilusioz lanean hasi ziren, Roman Txus eta Iñaki".

Gogora ekarri zuen moduan, "ukuilu bat musika eskolan bihurtu zuten". Hasiera ez erraza, dena egiteke, "zalantzak mila, helburuak finkatzeko, leku gabe... Zenbat lan eta zenbat zama. Hemendik haiei eskerrik onena, herri honi musika eskola bat oparitzeagatik".

Gerora etorri ziren Kale Nagusiko Villa Pilar eraikin zaharrera leku aldaketa, irakasle taldearen osatzea, "erabaki zailak baina ilusioa galdu gabe berriz ere". Eta bertan hazten eta indartzen segi zuen Zumartek. "Instrumentu eskaintza asko handitu zen, abesbatza erraldoia, orkestra, txaranga, bidaiak Bartzelonara, Madrilera, Islandiara...".

Azkenetako mugarrigarrantzitsua urteotan berreraikitako eraikina izan da. "Horrek eman digu lasaitasuna eta segurtasuna. Segurtasuna deritzot, Udalak teilatupe berri bikaina eman digulako eta horrek eman dizkigulako gure hegalak zabalatzeko aukera paregabea", Zumarteko lehendakariak nabarmendu zuenez.

Egun, "geroz eta jende gehiago dabil musika eskolan, geroz eta adin, genero, musika talde gehiago eta hortaz baino harroago ezin gara egon. Lasaitasuna diot, ikasturteak errazago direlako, badakigulako nola funtzionatu, ekintzak sendotu zaizkigulako eta horrek ematen duen lasaitasunagatik".

Aurrera begira, "gure helburuak asko badira ere, bat behintzat garbi daukagu; musika

**"GURE HELBURUAK ASKO BADIRA ERE, BAT BEHINTZAT GARBI DAUKAGU; MUSIKA HERRIARENTZAT ETA HERRIA MUSIKARENTZAT"**

herriarentzat eta herria musikarentzat" egiten segitzea. Mikel Laboa plazan bildutakoei adierazi zenez, "hemen nahi zaituztegu beste 40 urtez edo gehiagoz". 40. urteurreneko ospakizunen abiapuntua izan zen ostegun iluntzekoa. Ekainera arte hileroko hitzordurik izango da ospakizunetan den Zumartekin.

### Zumartek 40 urte

*Egun da Santi Mamiña  
Benetan egun samina  
Goiko zeruan gorde dezala  
Luzaro neure arima*

1  
*Badira berrogei urte  
Jaio zinela Zumarte  
Musika biziz segiko degu  
Beste berrehun bete arte*

2  
*Herriko txistulariak  
Izan ziran sortzailiak  
Urtetan zenbat fruitu eman  
du(e)n  
Hor ereindako haziak*

3  
*Soka, perkusio, haize,  
Afina desafinatze  
Ospakizunak hastera doaz  
Nahi zaituztegu konplize*

4  
*Kortxea, beltz ta borobil  
Musikatik beti hurbil  
Berrogeigarren urteurrena  
Hastera doa Usurbil!*



Narciso Arrillaga zubietarra hazten ikusi duen udaletxe azpiko leihoaren parean, Almandegi aurrean.

# "Galzorian egotetik txapeldun izatera pasatu da pottoka"

**NARCISO ARRILLAGA ZALDIZAINA**

Gipuzkoako Pottokazaleen Elkarteko lehendakari-ordea da eta urteak daramatza pottokak berreskuratzeko borrokan. Egun, pottokak kirolerako entrenatzen ditu.

## Noiz eta nolatan hasi zinen pottokaren inguruan interesatzen?

Betidanik ibili izan naiz zaldiekin eta zalditegia ere izan nuen Bugatin. Zaldi-hazlea naiz afizioz eta ofizioz. Beti zaldiekin ibili izan nintzen eta pottokarekin askorik ibili gabea nintzen, baina pottokak berreskuratzeko lehen proiektu haiek ikusi nituenean, oso interesgarriak iruditu zitzaizkidan eta bertan sartzea erabaki nuen.

1994 urtean edo hasi nintzen kontu hauekin eta ordutik pottokekin lan asko egin dut. Sinisten dut oso proiektu polita daukagula eskuartean.

## Euskal espezia dela esan ohi da.

Euskadiko iparraldean zegoen zaldi mota bakarra da pottoka. Kobazuloetan aurkitutako aztarnetan aurkitu dituzte pottoken hezur eta zantzauak, eta ikerketa talde bat aztertzen ari da egungo pottoka eta kobazulo garaiko pottoken artean zenbateko gertutasuna dagoen. Ez dago esaterik pottokak noiztik bizi izan diren lurralde hauetan, baina garai haietan bazen. Euskal Herrian azienda oso garrantzitsua izan da baserriko lanetarako, meatzaritzarako zein garrariorako. Antzinako dokumentu batzuen arabera, Valentzia ingurutik eta beste txoko ba-

tzuetatik jendea pottoken bila etortzen omen zen. Oso zaldi gogorra da eta ezaugarri bereziak ditu. Mantenu gutxi behar du Euskal Herriko mendiak ez direlako oso aberatsak elikagaietan, eta neguan euri asko egiten duenez, aziendak oso gogorra behar du iraun eta mantent-

**"OSO PROIEKTU POLITA DAUKAGU ESKUARTEAN ETA TXUKUN ARI GARA LANEAN"**

tzeko. Pottoka oso ondo egokitua dago horretara, eta interesa pizten zuen urrutiko zaldizaleen artean ere.

## Horren egoera larrian dago arraza?

Baserri eta meategietako lanak industrializatu eta mekanizatu egin dira azken mendean eta hala, pottokak bere funtzioak galdu zituen. Zaldi handigoekin nahasten hasi ziren eta haragitarako etekin gehiago duten zaldienganako joera nabarmendu zen industrializazio garaian. Jatorrizko pottokak ez du etekin handirik haragitarako: oso estua da. Horregatik nahastu zituzten beste arraza batzuekin. Horrela galtzeko zorian egoitera iritsi zen.

## Zer ari zarete egiten kontserbatzeko?

1970-1980 inguruan, pottoken ezaugarriez interesatzen hasi ziren hainbat pertsona eta zaldizale. Euskadiko hiru Foru Aldundiak arraza berreskuratzeko programak sortzen hasi ziren eta zenbaketa egin zuten ikusteko zenbat ale geratzen ziren. Beranduago, Zaldibiko gazte elkarte bat ere (ZAPE) pottokekin lanean hasi zen arraza berreskuratzeko. Gerora sortu zen Gipuzkoako Pottoka Elkarte. Hasiera batean, kopurua handitzean zentratu ginen. Pottoka estandar eta puruenak hartu eta ugalketa prozesuan lagundu genuen. Lehen aleak sortzen hasi zirenean, tartean tartean akats arrazialak zeuzkaten pottokak ere jaiotzen ziren, ama eta aita ez baziren erabat puruak. Oso behor gutxi ziren puruak, 100 bat edo baldin baziren, eta abanikoa irekitzea garrantzitsua zen. Lanketa handia egin eta akats arrazialak zituzten aleak bazterrera utzita lortu genuen berreskurapenean aurrera pausoak ematea. Gipuzkoako abeltzainek lan handia egin dute prozesu honetan. Odol laginak eta ileen laginak daukagu,





Haur bat pottoka batekin, hipika erakustaldia eskaintzen.

→ eta hala, badakigu pottoka bakoitzaren arbasoak zein izan ziren; liburu genetikiko bat daukate. Egun, arraza asko ere homogeenagoa da prozesu horren ondorioz.

#### Lehen ere ezaugarri fisiko berak zituzten?

Naturak zehazten du animalia bat nolakoa izango den. Janari asko dagoen lekuan sortua bada, handia eta zabala izango da. Janari gutxi dagoen lekuan ezin halakoa izan. Bada esatera zahar bat honakoa dioena: "nolako mendia, halako behia". Animalia batek negua mendian pasatu behar badu, handia eta haragitsua izan behar du; ez bada hala, ezin ugaltu. Pottoken altuera estandarra honakoa da: 1,15-1,30 metro dituzte gurutzean, bizkarretik lepoa hasten den puntu horretara arte. Hala ere, pottokak zaintzen hasi ginenean negua errazago pasatzeko, elikatu egiten genituen eta moxalak hazi egin zirela konturatu ginen. Beraz,

pottoka baten gurasoak eta aitona-amonak ezagunak bazez, eta ondorengoak esandako neurrikoak baino handiagoak badira, onartu egiten ditugu. Onartzen dugu arraza purua lortu dugula eta gorabehera horiek elikadurari dagozkiola.

#### Zeintzuk dira aurreikuspenak?

Egun, 1000-1100 ama inguru daude. Oraindik ere galzorian dago, baina lanean ari gara kopurua handitu eta genetikoki anitzak izan daitezten. 5.000 ama inguru daudenean galzoritik kanpo egon daiteke kopuruz, behintzat. Zer ari

**"POTTOKA GUZTIAK PONEY-AK DIRA, BAINA, HALA ETA GUZTIZ ERE, PONEY GUZTIAK EZ DIRA POTTOKAK"**

gara egiten bigarren fasean? Etekin ateratzen animalia hauei. Azienda hau betidanik lanerako erabili izan da, hala egiten zuten gure arbasoek. Oso funtzionala zen. Donostiako 1850 urte inguruko argazkietara joz gero, karro guztie tiraka pottokak ikusten dira. Zaldi txiki eta beltz batzuk, gehienak pottokak. Mekani-zazioak eraman zituen galzorian egotera. Beraz, hori jakinda, proiektu bat martxan jarri genuen moxalak umeekin erabili ahal izateko. 9 hilabete 3 urte izan bitartean, probak egiten ditugu nolako jauziak egiten dituzten ikus-

**"BADA EUSKAL HERRIAN ESAERA ZAHAR BAT HONAKOA DIOENA: "NOLAKO MENDIA, HALAKO BEHIA"**

teko. Balio dutenak zalditegi-eraman ditugu umeekin hipikako klaseak egiteko. Zornotzan erakustaldia egin genuen 12 bat pottokarekin hipikan nola ibiltzen diren erakusteko. Zalditegi batzuen eskaerak dauzkagu pottokak nahi dituztelako, eta Hondarribiako zalditegi batean dezentente dauzkate hurrekin ibiltzeko. Legez, 16 urte arteko hurrek poney-ekin lehiatu behar dute. Poney-ek 1,50 metro baino gutxiago izan behar dute gurutze puntuan. Ezaugarri hori betetzen duten arraza guztiak poney-ak dira, eta horien artean dago pottoka. Beraz, pottoka guztiak poney-ak dira, baina poney guztiak ez dira pottokak.

#### Lehiaketetan parte hartzen dute jada?

Aurten, Segovian egin zen erresistentzialasterketa batera eraman ditugu pottokak mendiko lasterketa bat egitera. Espainiako txapelketa egin zen poney-ekin eta edozein arrazak balio zuen eta guk bi talde eraman genituen pottokekin. Batekin zilarrezko domina lortu genuen eta bestearekin brontzezkoak. Galzorian egotetik txapeldun izatera pasatu da pottoka. Hasi berriak gara, eta jada emaitza horiek lortzeak asko esan nahi du. Aproposenak bilatu behar ditugu kirolerako eta lanketa egin horretatik abiatuta. Ez zitzaion inolako baliorik ematen orain gutxi arte funtzio guztiak galdu zituelako, baina orain badakigu gauza askotarako balio duela.

#### Norbaitek baserrirako nahiko balitu, nola lor ditzakete?

Gipuzkoako elkartearekin kontaktuan jarrita eros daitezke pottokak. Hona kontaktua: 646755476 (Mirari, GPE, Gipuzkoako Pottoka Hazleen Elkarte). Erraza da zaintzen; ez du lan askorik ematen. Lur-sailak oso ondo garbitzen ditu eta elikadura oso gutxirekin. 80-90 hazle gara egun.



Islandiako futbol ligan jokatu du aurtan. Argazkian, fiordo baten goikaldean, turismo pixka bat egiten.

# "Ilusioarekin nabil denboraldi honetan, igoera lortuta"

**XABI CARDENAS** FUTBOLARIA

Futbolak Islandiara eraman du Xabier Cardenas herritarra, hango talde batean jokatzera. Euskal talde askotatik pasa ondoren, atzerrian Islandiako Volsungur taldeak fitxatu eta esperientzia oso berezia ari da bizitzen.

**Islandiara eraman zaitu futbolak.** Urtarrilean talderik gabe nengoen, eta AFE (Asociación de Futbolistas de España) elkar-tearen bidez, udan eta neguan talderik gabe gauden futbolari-talderik bi astetako entrenamendua eta partidak antolatzen dituzte, futbolari bila dabilen taldeek ikus gaitzaten. Azpeitiar bat zegoen bertan, hura zen euskaldun bakarra, eta kontatu zidan hiru urte zeramatzala Islandian jokatzeko eta oso gustura ibili zela. Talderik gabe nengoen orduan, eta Islandiaz horren ondo hitz egin zidanez, buruan neukan ideia bat zen. Bi aste pasatu ziren eta talderik gabe jarraitzen nuen. Beraz, azpei-

tiarrak eta biok Islandiara joan eta biok batera talde bat aurkitzea erabaki genuen. Hala, Volsungur taldeak interesa agertu zuen eta bertan hasi ginen jokatzeko.

**Denboraldia hasi berri duzue orain?**

Islandian urte naturalaren baitan antolatzen da liga. Martxoan joan nintzen, eta irailean amaitu zen. 7 hilabeteko denboraldia izaten da. Orain, neguan, ikaragarriko elur-jasak izaten dira. Iparraldean bizi ginen gu, eta partida asko Reykjaviken izaten genituen, eta errepideak itxita egoten dira eta horrela, ezin da edonora joan jokatzera. Beraz,

denboraldiaren antolaketa ezberdina da.

**Bizimodua oso ezberdina izango da, ezta?**

Ingelesezt aritu beharra egin zitzaidan, lehen inpaktuan, zailena. Jende gehienak islandieraz egiten du, baina orokorrean ingelesez ere mol-

**"ISLANDIAKO VOLSUNGUR TALDEA AURKITU GENUEN ETA BERTAN HASI GINEN JOKATZEN"**

datzen dira. Ohiturak ere oso ezberdinak dira: jendea oso etxeak da, klimari lotuta, orokorrean. Gu iparraldean bizita, neguak gogorak, baina udak goxoagoak izaten dira eta ia euririk ere ez digu egin. Ekialderago euri gehiago egiten omen du eta hotzagoa da. Beraz, alde horretatik ondo egon gara. Udan, gainera, gaurik ez da izaten, beti argi dago. Horrek zoramen pixka bat sortu dit eta nahiko nahastuta ibili naiz. Futbol zelaiaren ondoan bizita, gauerdian haurrak entzuten genituen futboleko jokatzeko. Argi zegoen, baina gaueko 00:00ak ziren; zaila da horretara ohi-tzen. Gurasoak bisitan etorri zirenean, amari gortina batzuk ekartzeko eskatu nion, Islandian ez baitago pertsianarik. Argiaren kontua da ohitzeko zailena. Neguan, beti ilun dago, eta esango nuke hori oraindik ere nahasgarriagoa dela. Udan pertsiana inprobisatu batzuekin lo egin dezakezu, baina neguan argirik gabe egotea gogorragoa iruditzen zait.

**Futboleko aritzeko modua ezberdina da Islandian?**

Lehen hilabeteetan ingelesarekin komerkiak izaten nituen azalpenak ulertzeko, baina berehala ohitu nintzen. Beharrek egiten du azkenean, eta aurpegia bota behar zaio. Umetatik ikasi dugun hizkuntza da, eta oso iaioa inoiz izan ez banaiz ere, moldatu beharra dago. Islandiarako hitz batzuk ere ikasi ditut. Poloniar pila bat daude herrialdean. 350.000 biztanle inguru dira guztira eta 80.000 poloniarrek dira. Islandiarrak atzeritarrekin badute halako hotsasun bat. Izan ere, kanpotarrak ez dira hizkuntza ikasten saiatzen, ez eta kultura ulertzen ere. Horrekiko badute halako gaitzespena. Nik hori euskaldunon egoerarekin oso lotuta ikusten dut, eta errespetu-gatik hitz batzuk ikasi ditut eurekin erabili ahal izateko.



Xabier Cardenas usurbildarra Islandiako Volsungurren elastikoa defendatzen, aurtengo denboraldiko partida batean.

Hala, eurei ere halako goxotasun bat sortzen diet. Islandiarrak oso gogorak dira, ez dira ia lesionatu ere egiten. Behin lesionatuta ere, astebe-teko atsedena hartu eta ia oina lurrean jarri ezin dutela ere entrenatzen hasten dira. Nik hori eguraldiarekin lotzen dut, oso egoera gogorretara ohi-tuta daudelako. Alderdi taktikoa ez dute bereziki lantzen; edonork nabaritu luke alde hori.

#### **Islandiak oso biztanle gutxi ditu. Ligan ez dira talde asko egongo, ezta?**

Lehen, bigarren zein hirugarren mailan 12 talde daude. Beraz, oso denboraldi motza izaten da. Zortzi bat maila daude guztira. Egunerok entrenatzen genuen. Islandian ez dago zeregin handirik, eta horregatik egunerok entrenatzen dutela esango nuke nik. Espainian astero egun bat libre izaten da normalean.

#### **Hau duzu nazioarteko lehen esperientzia. Atzerrian beti jokatu nahi izan al duzu?**

Mailaz igotzea lortu genuen aurreko denboraldian eta talde berean jarraitu ala ez erabakitzen ari naiz. Hala ere, badakit Islandian jarraituko

dudana. Oso gustura egon nintzen eta esperientzia ikaragarria izan da. Futbolarekin ilusioa galduta eman ditut denboraldi batzuk, baina Islandiak ilusioa itzuli egin dit. Otsaila edo martxorako ziur bueltan izango naizela.

#### **Islandiako esperientzia amaitzean atzerrian jarraitzeko gogo duzu edo etxera itzuliko zara?**

Aurten Islandian jarraitzeko asmoa dut. Behin kanpora aterata uste dut errazago dela beste herrialde batzuetara joatea. Orain aukera on bat aterako balitzait beste herrialde batean ez nuke baztertuko, emango nioke aukera bat. Nik argi daukat Euskal Herrian bizi nahi dudala, baina oraindik gaztea naizenez, esperientziak bizi nahi ditut.

#### **Futbolari izateaz gain, ikasketak egiten ari al zara?**


**"LEHEN, BIGARREN ETA HIRUGARREN MAILAN 12 TALDE DAUDE; OSO DENBORALDI MOTZA DA"**

Islandian lan egin eta futboleant ibiltzen gara. Futboleant jokatzean, etxea, autoa eta soldata ematen dituzte, baina gehiengoan lanaren bidez lortzen da. Aurten bukatuko ditut psikologiako ikasketak eta masterra egin beharko dut datorren urtean. Hori kanpoan egiteko asmoa daukat, eta ondoren, behin dena amaituta, etxera itzuli psikologo lanetan hastera.

#### **Denbora luzean jarraituko duzu futboleant?**

Urtarrilean, talderik gabe nengoenean, uztekotan egon nintzen. Motibazioa erabat galduta neukan. Orain ilusioarekin nabil denboraldi honetan igoera lortuta, partida guztiak jokatuta eta abar. Intentzioa jarraitzea da, beraz, urtez urte aztertu beharreko kontua da. Kanpoan urtetxo batzukegitea da asmoa.

**"ILUSIOA GALDUTA EMAN DITUT DENBORALDI BATZUK, BAINA ISLANDIAK ITZULI EGIN DIT"**



Xabier Cardenas.

## Laburrean

**Zenbaki bat:**  
14.

**Kolore bat:**  
Berdea.

**Miresten duzun kirolari/entrenatzaile bat:**  
Xabi Alonso.

**Gustuko duzun futbol zelai bat hauta ezazu:**  
Stamford Bridge futbol zelaia (Londres).

**Ikusi duzun azken pelikula edo telesaila:**  
Gladiator 2 (Ridley Scott, 2024).

**Liburu bat aholkatuko diguzu?**  
Maskulinitateak (R.W. Connell, 2022).

**Zein da zure abeslaririk gogokoena?**  
Reggetoi zalea naiz; Bad Gyalen abesti berria.

**Zein da gehien jarraitzen duzu sare soziala?**  
X (lehenengo Twitter).

**Usurbilgo txoko bat aukera ezazu.**  
Kalezar auzoa.

**Santixabelak ala Sagardo Eguna?**  
Sagardo Eguna.

**Oporretarako toki bat.**  
Malaga.



Diziplina ezberdineko artistek parte hartuko dute herri omenaldian.

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen aldeko herri omenaldia

Maiatzaren 3an, 14.000 lagun elkartu nahi dituzte Barakaldoko BECen. Sarrerak Durangoko Azokan eskura daitezke, edo online.

2025ean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen 'Maite zaitut' kantak 20 urte beteko ditu. Urteurrena baliatuz, diziplina ezberdineko artistak batuko dira eta pailazoak omentzeko ikuskizun bat eskainiko dute maiatzaren 3an, BECen. Sarrerak salgai daude honez gero.

Amagoia Mujika usurbildar kazetaria eta idazlea da jaialdi honetako sustatzaileetako bat. Bere esanetan, arrazoi ugari daude pailazo hauek omentzeko. "1987an beraien ibilbideari ekin ziotenetik, Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek belaunaldi askori utzi diote arrastoa bidean, jendarte oso bat eraikitzeko oinarri eta zimenduak jarriz. Euskarara etorri direnei beso-zabalik, pertsonak lehene-tsi dituzte beti mapen aurrean, eta aniztasunaren bandera guztiak haizatu, tinko".

Maiatzeko hitzordu berezi horretara den-denak bertaratzeari nahi da: "haurrak, gazteak, helduak, zaharrak, familiak, norbanakoak, bikoteak, hirukoteak, lagun-taldeak, lankideak, ikaskideak, bizilagunak...

Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek arrastoren bat utzi dietela sentitzen duten guztientzako lekua izango da bertan: 14.000 bihotz elkarrekin, taupa-taupa".

### "Herriak pailazoei eskainiko dien eskertzea ekitaldia izango da"

Ane Labaka bertsolari eta idazle lasartearrak osatuko du emanaldiko gidoia eta Agurtzane Intxaurraga izango da zuzendari artistikoa. "Ez da pailazoen ikuskizun bat izango", ohartarazi dute. "Beraiek han egongo dira baina omen-duen tokian. Herriak pailazoei eskainiko dien eskertza-ekitaldia izango da". Agurtzane Intxaurraga zuzendari artistikoa azaldu duenez, "pailazoak ikusle izango dira eta herria izango da aktore bihurtuko dena".

### Sarrerak salgai

Sarrerak online eskura daitezke, nikeremaitzezaitut.eus atarian. Sarrera fisiko batzuk ere salgai jarriko dira Durangoko Azokako zenbait postutan. Guztiak ere 15 euroan (+ kudeaketa gastuak).

## Egitarau oparoa Santuenean, urtea agurtzeko

### Abenduak 14, larunbata

• 16:00-20:00 Gabonetako azoka, eguberrietako argiak piztea. Eskulanean eta artisau-produktuen salmenta eta haurrentzako tailerrak frontoian. Nuri Cullak girotuko du.

### Abenduak 21, larunbata

• 18:30 San Tomas Eguna, txistorra banaketa.  
• Santuenea Kultur Elkarteak bazkideen artean otarren zozketa eta umeen artean txerri-txoaren zozketa Santuenea 12an. DJ Gorka Mendik girotuko du.

### Abenduak 23, 27, 30

• 11:00-13:00 Iristaketa ikastaroa frontoian eta eskubaloi pistan. Beharrezko materiala: kaskoa, babesgarriak (esku-mutur eta ukalondoetarako eta betaurrekoak) eta patinak.



Hilaren 14an piztuko dituzte argiak.

• Prezioak: haur eta gaztetxoek 15 euro (Santuenea K.E.-ko bazkideek 5 euro) eta 25 euro 18 urtetik gorakoek (10 euro Santuenea K.E.-ko bazkideek).  
• Informazio gehiago jasotzeko eta izen-ematea: 621 095 644 /santueneake@gmail.com

### Abenduak 24, asteartea

• 18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera.

Antolatzailea: Santuenea KE.

## Ibai-Ondo backyard kirol proba berrian izen-emateak zabalik jarraitzen du

Azaroaren 18tik 24ra usurbildarrek izan zuten apirilaren 12ko asteburuan Santuenean egingo den proban izena emateko lehen tasuna. Aste hasieraz geroztik edonork du apuntatzeko aukera backyardibaiondo@gmail.com helbidean.

Gogoan izan, 100 lagunentzako lekua egongo da "Ibai-Ondo Backyard" izeneko erronka girotuan. Mezu horretan, norberaren izena eta bi abizenak, helbidea, udal-lerria, posta kodea, probintzia, telefono zenbakia eta posta elektronikoko helbidea zehaztu beharko dira. Antolakuntzak parte hartzaileen aldetik jasotako emailen hurrenkeraren arabera erabakiko dira nortzuk izango diren parte hartzaileak eta haiei jakinaraziko diete nortzuk izan diren onartuak, nortzukez, ordaintzeko modua



100 lagunentzako tokia egongo da.

adieraztearekin batera. Erronkako kide bakoitzak 35 euro ordaindu beharko ditu. Orduro 6,7 kilometroko ibilbidea osatzean oinarritzen da ekimen hau. Azken partaidea geratu arte iraungo du probak. Informazio gehiago bideotatik jaso dezakezue:

Instagram:  
@ibai\_ondo\_backyard

Facebook:  
Ibai-ondo Backyard

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m<sup>2</sup> lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

## MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase par-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragak berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tikullarrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

Andatza tabernan sukaldari bila gbiltza: 627 841 927

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrik emateko. Telefono zenbakia: 647742588

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Paperak egunean ditudan neska bat nabil eta interna moduan edo orduka

zaintza lanak edo garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. Interesatuak deitu hona: 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat nabil. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. Telefono zenbakia: 628 459 625

## BESTELAKOAK

Ibilgailurako Reracro markako Zero.1 Bi haur aulki dauzkat salgai. 5 urte arte erabilgarriak, eta egoera onean. 125 euro bakoitzak. Harremanetarako: 653717186.

Zilarrezko lepoko bat eguzkilore berde batekin galdu nuen abenduaren 1ean, Usurbilgo erdigunean. Aurkitu baduzu eskertuko nizuke deitzea. Harremanetarako: 625701616

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## EGUNEZ

Osteguna, 05	KNIESE JAUREGUI, LEIRE San Francisco, 1, Lasarte-Oria / 943 36 65 67
Ostirala, 06	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 07	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 08	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Astelehena, 09	DE ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Astearte, 10	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Asteazkena, 11	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Osteguna, 12	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 13	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 14	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 15	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe I I Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

## Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiaro Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

## Eskubaloia Oiardon

## Abenduak 7, larunbata

- 16:00 Kadete mutilak:

Usurbil KE A-Leizaran Camacho Construcion

## HILDAKOAK



**Maria Angeles Zubillaga Arana**  
Azaroaren 28an hil zen, 81 urterekin.



## HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

- ▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotakoak emango ditugu argitaratu.
- ▶ Gainontzekoak, hurrengo asteko astekaritan.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## ASTEARTEA 10

**USURBIL** Sortalderen hitzaldia: "Pobrezia energetikoa"

"Pobrezia energetikoa. Zer da eta nola egin diezaiokegu aurre?".  
Hizlaria: Aitor Ossa (Goierer).  
18:30 Potxoenean.

## ASTEAZKENA 11

**USURBIL** "Abentura zirrargarria" ipuin kontaketa musikatua

Perli eta Koxkoloren eskutik.  
18:00 Sutejin.

## OSTEGUNA 12

**KALEZAR** Emakumeon Etxea: "Ama ta asunak" erakusketa

Irekiera eta egilearekin, June Baonza Pagaldarekin solasaldia.  
Bisita-orduak: astelehen, asteazken eta ostiralean:  
10:00-13:00. Astearte eta ostegunetan: 10:00-13:00 / 17:00-20:00.

## OSTIRALA 13

**TXOKOALDE** Sendabelar ikastaroa

Izen-ematea: 619 591 849.  
18:00 Txokoargin.

**USURBIL** "Etxe bat, norberarena" emanaldia

Yolanda Arrieta eta Peru Galbeteren eskutik.  
19:00 Sutejin.



Aitor Ossa pobrezia energetikoaz arituko da abenduaren 10ean, Potxoenean.

## Sortalderen hitzaldi zikloa

**Abenduak 10, asteartea**

18:30 "Pobrezia energetikoa. Zer da eta nola egin diezaiokegu aurre?". Hizlaria: Aitor Ossa (Goierer), Potxoenean. Zehaztasunak: "Sortaldetik, energiaren alorreko hausnarketari ekin nahi zaio herri mailan. Energiak gure bizitzak zeharkatzen dituenz gero, pobrezia energetikoaren gaia lantzeko proposamena gauzatu da, elkarrekin egoera

zaugarrian aurkitu daitezkeen pertsona eta familiak laguntzeko, eman ditzakegun urratsak identifikatzeko asmoarekin.

**Abenduak 17, asteartea**

18:30 "Energiaren erabilera eta kontsumo jasangarria. Ze efizientzia neurri hartu ditzakegu gure etxe, negozio eta abarretan?". Hizlaria: Aitor Ossa (Goierer), Potxoenean.

## Helduentzako solasaldi filosofikoa

Filosofatzea helburu duen helduei zuzenduriko saioa antolatu dute Jakinmin Elkartek eta Usurbilgo Oinherri Herri Hezitzailea Elkartek abenduaren 13an, 18:30ean Potxoenean. 15 laguntzako tokia egongo da hitzordu honetan. Izena doan eman ahalko da usurbilkultura.eus plataforman. Filosofatzea eta haren bidez, pentsamendu kritikoa garatzea helburu izaten dute saio hauek.

## Haurrentzako zinea euskaraz

Abenduaren 15ean "Sabelhortz kapitaina eta diamante magikoa" filma eskainiko dute, 17:00etan Sutejin. Sarrerak 3'20 eurotan eskuragarri, usurbilkultura.eus plataforman.

## Ikastaroak Txokoaldeko Txokoargin

**Abenduak 13, ostirala**

18:00-20:00 Senda-belar ikastaroa Leire Lazkanorekin: "Aurpegiko kremak". Oharrak: gehienez 12 laguntzako tokia. Toaila txikia eraman. Prezioa: 10 euro.

**Abenduak 14, larunbata**

10:00 Errege opila egiteko ikastaroa Idoia Artuzamunorekin. Oharrak: gehienez 12 laguntzako tokia. Prezioa: 10 euro.

**Izen-ematea:**

619 591 849 (Arratsaldez 16:00-18:00).

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

**ARANKA**  
BERRIKUNTZAK  
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak  
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
· Igeltseritza orokorra  
606 37 21 05 USURBIL

**Okindegia-Gozotegia**  
LABE-GOXO

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**  
www.noaua.eus

# 2025



## 2025 zain duzu! Laster, zurean izango gara Gipuzkoako egutegiak banatzen



Egutegiak banatuko  
diren guneak eta  
ordutegiak ezagutu

 **GIPUZKOA**  
Foru Aldundia

# San Tomas lehiaketan parte hartzeko **deialdia**

## Noaua!k baserritar guztiak gonbidatu nahi ditu

Herritarrek sagardo eta  
babarrun lehiaketan parte hartu ahal izango dute.  
Parte hartzeko azken eguna abenduak 10



Abenduaren  
**sari** banaketa **15ean**



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

·ERAIKUNTZAK ·OBRAK  
·BERRITZE LANAK

**ARANKA**  
BERRIKUNTZAK

·Fatxadak estaldurak ·Estalkien berriztatzeak  
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa  
·Igeltseritza orokorra

Tel: 722 297 867 USURBIL info@arankaberrikuntzak.com

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

Telefona  
693 059 392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

HIPODROMO KALEA BEHEA 10, LASARTE ORIA

**ITZIRA**  
ERAIKUNTZAK

·gremioen koordinaketa  
·berritze lanak  
·sukaldeak  
·komunak

943 530 337  
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

**IRUARKAITZ**  
ERAIKUNTZAK, S.L

·FATXADAK ETA TEILATUAK  
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK  
·URALITA KENTZEKO ENPRESA BAIMENDUA

iruarkaitz@hotmail.com

**630 90 02 79 AGINAGA**



**Antonio URRUZOLA**  
AROSZTEGIA

687 845 599 - 943 376 415  
Astasuain Industrialdea, 3

USURBIL

**J. R. IBARGOEN S.L**

ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.aroztzi.net jr.ibargoien@hotmail.com

943 36 14 48 - 676 45 31 76



**ARGILAN**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**antenas Telemar**

629 121 355

Elkano kalea 13, HERNANI



**APARICIO**  
DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943  
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**Zuri arrain**  
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465  
zuriarraiturgintza@gmail.com



**ANORGA TXIKI S.L**  
KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak  
·beira bikoitza ·segurtasun beirak  
·dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**maiz**  
hornigalak

·TRESNERIA ETA ERREMINTAK  
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)  
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39